

Uztaz uzta, alez ale



JOSEBA OLALDE

Kanta martxosoa da aurtengo Araba Euskaraz-ekoa; egunean zehar behin eta berriz entzun ahal izango da. Argazkian, iazko kontzertu bat.

Perea eta Eñaut Agirre bertsolariak ariko dira, eta Pobeda presan, berriz, Mikel Mendizabalek, Imanol Lazkanok, Sebastian Lizasok eta Iñaki Muruak jardungo dute bertsotan.

13:00ak aldera hasten da musika kontzertuen txanda. Ikastolan Trikitzio, Kalamua, Mikel Urdangarin eta Iraile-arako 6 musika taldeak izango dira. Bide Ertzean, Tirri Tarra show-a eta Arawak-ekin gozatzeko aukera izango dute Pobeda presara joaten direnek, eta azkenik, Pobeda Rock gunean talde ugari ikusteko aukera dago. 13:00etan Garik emango die hasiera kontzertuei, ondoren Trikitixa Kontrario, Skalarriak eta EH Sukarrarekin dantzatzeko aukera edukiko dute guztiak.

Egun osoan, nola ez, gune guztietan indarrak berritu ahal izateko edaria zein janaria salduko dute txosnetan, baina otarteko bat gutxiegi iruditzen zaienentzat, eguerdiko 14:00etan Herri bazkari bat egingo da Frontoian.

Egitarau bete-betea prestatu dute Araba Euskaraz jaia antolatzaileek bihar-ko. Euskal Herri osoko euskaltzale guztien parte hartzea baino ez da falta. Izango da zer ikusi eta zer dastatu 6,5 kilometroko ibilbide ederrean.

Egoera islatzeko kantua

■ ARABAR ERRIOXAKO euskalgintzan azken hoge urteetan emandako aurrerapausoak gogoratu nahi ditu aurtengo Araba Euskaraz-eko kantak. *Errioxatik Errioxara* kantua eskualde horretan euskaldunen belaunaldiak badatozela azpimarratzeko asmoz egina da.

Abestiaren hitzak Jon Maia eta Igor Elortza bertsolariek idatzi dituzte. Tomas San Miguel musikariak egin duen lana ere aipatzekoa da oso. Bera izan da produkzioaren arduraduna, baita musika, grabaketa eta nahasketena ere. Abestian entzuten diren teklatu eta akordeoiaren doinuak ere San Miguelek eginak dira. Erritmo biziko kanta bat lortu dute, halako jaietan jendearen ezpainetan egun osoan entzuten den horietakoa. Horretan oso lagungarria izan da Ibon Otxoa eta Fernando Azurmendi txalapartarien ekarpena.

Baina kantu guztiak bezala, honek ere abeslariak behar ditu, eta talde polita osatu dute antolatzaileek musikari hitzak eranstekoa.

Uztaz uzta, alez ale

Loratu da mahats orria
marraztu du lur gorria
Errioxatik, Errioxara
badator uzta berria.

La Pueblatik La Pueblara
zenbat ginen zenbat gara
bide estua izan zen hura
orain mundu zabala da

Alez ale uztaz uzta
euskarak mugak non dauzka
uztaz uzta alez ale
euskaraz mugarik gabe

Argi-ilunak eragiten
eguzkiak sartu irten
goazen denok uzta bildu ta
Araba euskaraz egiten

Pausorik pauso denbora
azkar igaro da
iraganera goaz gaurkotik
iraganetik gerora

Egileak:

Jon Maia eta Igor Elortza

Musika:

Tomas San Miguel

Abeslariak:

Iñaki (Betagarri), Amaia
(Trikitixa Kontrario), Oihane
Perea, Asier Iriondo eta Eñaut
Agirre (bertsolariak).

Txalaparta:

Fernando Auzmendi
eta Ibon Otxoa.

Alez Ale
Euskal Herri
Euskaldun
erai Ki arte.



Araba
Euskaraz 99



Ekainaren 20an
DENOK
LAPUEBLA LABARKAra